

# noaua



Dagoeneko 600 herritarrek babestu dute maiatzeko herri galdeketa

**“Batzen gaituen etorkizunaren alde”**

# Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2016 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2016ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK  
**MENDEBALDEKO KOSTA**  
 Irteera Lasarte-Oriatik, NOAA BIDAIAK-ek lagunduta

**MAIATZAK 14-28** ezagutu...  
 Los Angeles  
 Grand Canyon  
 Las Vegas  
 Yosemite  
 San Francisco  
 eta askoz gehiago!

**NOAUA BIDAIAK**  
 Hipodromo Etorbidea, 10 - 20160 Lasarte-Oria, Gipuzkoa  
 T. 943 373 613 | info@noauidaiak.com  
 www.noauidaiak.com

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

**AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!**



12 ETXEBIZITZA  
 INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi<sup>n</sup>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
 20009 Donostia

E: contacto@viviendaslanin.com

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)



## Albiste iruditan

# Txileko irakasle talde bat Usurbilgo Lanbide Eskolako metodologia ezagutzera etorri da

Irakasle txiletarrak hamar egunez izango dira Usurbilgo Lanbide Eskolan, bertan erabiltzen diren metodologienginguruko formakuntza jasotzen.

Usurbilgo Lanbide Eskolaren lan egiteko moduak oihartzun handia du hezkuntza arloan. Baliatzen duen metodologia berritzaileari esker, ikasleari guztiz praktikoa egiten zaio ikastaldia. Besteak beste, ikaslearen parte-hartzean oinarritzen delako Lanbide Eskolaren jarduna. Txileko irakasleen hitzetan, "oso esperientzia aberasgarria izaten ari da". Usurbilgo Lanbide Eskolako irakasleek beren esperientzia azaltzen diete, sortu dituzten ikasmaterialak partekatuz eta ikasleei jartzeko zaizkien erronken garapena aztertuz.

## Aurreko astean, holandarrak

Herbehereetako Apeldoorn herriko



Hamar egunez izango dira Usurbilgo Lanbide Eskolako martxa jarraitzen.

Aventus lanbide heziketa eskolako hamasei irakasle izan ziren bisitan aurreko astean.

Usurbilgo Lanbide Eskolak duen be-

rrikuntza eta nazioartekotze maila oso garatuzat jo zuten eta horregatik bi eskolen arteko lankidetzak garatu ahal izateko bideak adostu zituzten.

## Laburrean

### Santueneko Gure Elkarteko taberna, astebetetz itxita

Berrikuntza lan batzuk tarteko otsailaren 14ra arte itxita egongo da (otsailaren 14a barne). Jubilatuen txokoa irekia mantenduko dute bazkideentzat, otsailaren 8, 9, 10 eta 11n, arratsalde, 17:00-20:30 artean.

### Helduen Hezkuntza Eskolan matrikulazio azken egunak

Matrikulazio epeak zabalik jarraitzen du Lasarte-Usurbilgo EPA Helduen Hezkuntza Eskolan. Ofiziala eta doakoa da. Izena emateko: 943 36 66 08 / 943 37 64 43 / [www.epalasarte.eus](http://www.epalasarte.eus)

### Korrika Batzordearen lehen bilera

Otsailaren 9an osteguna, arratsaldeko 19:30ean, euskaltegian bertan. Antolaketa-erako ekarpenak egitera animatzen gaituzte eragile eta herritarro. Apirilaren 4an iritsiko da Korrika gure artera.

# noaia

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // [elkartea@noaia.eus](mailto:elkartea@noaia.eus) // [www.noaia.eus](http://www.noaia.eus)

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

[publizitatea@noaia.eus](mailto:publizitatea@noaia.eus)

Diseinu berria: Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

[erredakzioa@noaia.eus](mailto:erredakzioa@noaia.eus):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Maialen Unanue

## Gure garaiak

**I**kasteko esan ziguten. Beraiek ez zutela aukerarik izan, eta beraiek baino bizitza hobea izan genezan bizitza hobea izan genezan nahi zuten. Egin genituen unibertsitate ikasketak lehenengo, masterrak edo graduondokoak gero. Lan mundura sartu nahian, praktiketan aritzeko aukera eman ziguten. Baina bitarte horretan guztian krisi ekonomikoak eztanda egin zuen.

Praktikak egitea lortu zutenek enpresan geratzeko esperantza txiki bat izango zuten. Baina bazekiten hura ez zela nahikoa izango; hizkuntzak ikasteari ekin zioten. Hau da, zekizkitenez gain. Gure alde honetan, gutxienez hiru jaso ditugu gure bizitzaren lehenengo urteetan. Baikorrenek

alemana eta txinera ikasteari ekin zioten. Apalenek, frantsesta, “gertu daukagu eta”.

Hala, praktikalditik praktikaldira, amatasun-aitatasun bajak edo oporraldiak ordezkatzeko mailaraino igo ziren batzuk. Eta hala dabilta, gabilta, ordutik. Orain bi hilabete, orain sei, orain bat, orain langabezira; beti lanean, baina beti ezegonkor. Hurrengo urratsa egiterako lur irmoa oinazpian izango duenaren ziurtasunik gabe. Lana lana da, ez gehiago. Baina lana ez da lana bakarrik; lanak independentzia ekonomikoa ematen du, eta, ondorioz, independentzia soziala ere bai.

Garaiotan, ordezkapenetik ordezkapenera gabiltzanontzat, etxe bat erostea ameskeria hu-

tsa da. Baina utikan erosketa; alokairua da bidea. Begirutzen hasi eta... alokairura joatea bera ere luxuzko produktuen atalean sartzen ari da. Hemen, Usurbilen, urrutira joan gabe. Eta arazoa ez da soilik eskatzen dituzten alokairu desorbitatuena; zein berme eman diezaiokezu etxe jabeari urtebeteko kontratu bat eskatzen badizu baldintza gisa, zuk zerorrek ere hainbestearainoko oparotasuna -ironiaz irakur bedi- espero ez baduzu lanean?

Gure garaiotan, besteak beste, etxetik alde egin ezin izatea bizitzan aurrera ezin egitea da. Unibertsitate ikasketak, graduondokoa, gutxienez hiru hizkuntzaren jakitun, baina ezin gurasoenetik alde egin.

Eta, hala ere, entzungo duzu zurea baino egoera hobea batean ez dagoen baten ahotik -baita zu baino egoera hobea dauden ahotetik ere- zortea daukazula, beti deitzen dizutela, beti daukazula lana, eta badela zerbait. Okerragoa izan zitekeen, jakina baietz. Baina hori entzuten duzun bakoitzean pentsatzen duzu ezin duzula kexatu ere egin, hori baino ez baituzu egiten marti hori, hobe zeundekeela isilik. Lanpostu egonkor bat eskatzea gehiegi eskatzea balitz bezala; gurasoenetik kanpo bakarrik bizitzea gehiegi eskatzea balitz bezala; bizitzan aurrera egiten uzten ez dizun hori salatzea zilegi ez balitz bezala.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | **Maialen Unanue** | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde

## Zubietako “Motza” bertsolaria

**J**uan Kruz Beloki Aranburu izenez eta “Motza” ezizenezko zubietar bertsolaria 1875ko urtarrilaren 27an jaio zen gaurko hipodromoan zegoen Artutxa baserrian. Baserri hau 1936. urteko Espainiako gerran Frankoren aldekoek setiatu zutenean, beraientzat hartu, bertako familia osoa bertatik bota eta aerodromoa egiteko erabili zuten inguruko lursaila.

Familian bost anaia eta arreba bat ziren: Andres, Luis, Juan Kruz, Maria, Jose Mari eta Jose Domingo.

Bertsolariaz gain, pultsulari ona zen. Behin, Donostiako zezen plazan Iruingo Antonio Astiazaranen aurka jokatu ondoren, berdinketa egon zela erabaki zuten antola-



Zubietako Artutxa baserrian jaio zen. Irudian ageri da. Gaur desagertua dago (argazkia ‘Usurbilgo baserriak eta baserritarrak’ liburutik hartua).

tzailleek. Ondoren, Juzgatuan barrena ibili ostean, baliogabetzat eman zuten jokaturikoa.

Hernaniko Mikaela Otxorenarekin ezkondu zen, bi seme-alaba izan zituztelarik. Zoritxarrez emaztea gazterik hil eta bi seme-alabekin geratu zen. Bere Maria arrebak jaso zizkion. Alaba 12 urterekin hil zitzaion eta bere semea Oriako

presan arrantzan zebilela sarearekin kateatua. Bakarrik geratu eta berriro arrebarentzako zama ez izatearren, Miserikordiara joan zen bizitzera.

Behin lagun batek hala esan omen zion:

-Hi, Motza! Zer moduz Miserikordian?

-Hura ez dek Miserikordia! Hura dek miseri gorria.

Ipar Euskal Herria ere igaro omen zuen. Azak jateko diru gehiago izanez gero, han pasako zuela denbora gehiago baina berriro ere Zubietara itzuli zen gosete latza pasa zuelako. Ezin zuen denbora gehiago irau: osinak bildu, haiek egosi eta jatera iritsi zela esaten zuen.

Lagunarteko otorduak egin eta gero, gustuko zuen bertotan aritzea baita bere inguruko lagunek ere. Tripa festak asko gustatzen zitzaizkion.

Frankoren aldekoek bere baserritik bota zutenean, Lasartera joan zen bizitzera; fabrika huts batera aurrena eta gero Arraskilleta deritzon etxera.

Gaitzak jota 1940 urteko urriaren 18an hil zen Donostiako Manteo ospitalean.

**Iñaki Agirresarobe**

# GuraSOS: “Kostako da, baina lortuko dugu”

**M**ezu argi hau ozen asko helarazi nahi izan zuen GuraSOS elkarteak, hondakinen kudeaketaren gaiarekin lotuta eta azken asteotan izan diren gertakarien harira, otsailaren 2an Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egin zuen agerraldian: “Kostako da, baina lortuko dugu”.

Auzitegiek ez, gizarteak izango du azken hitza eta erabakia gogorarazi nahi izan zuten, eta ildo horretatik, otsailaren 19rako deitua duten manifestazioan, Donostiako kaleak goraino betetzera deitzen gaituzte. “Donostiako kaleak bete egingo dira adostasuna edo liskarra, batuketa edo banaketa, guztiok irabazi edo guztiok galtzearen artean zein aukeratzin dugun ikusteko. Bertan ikusiko dugu lau urtean behin kutxa batean sartzen dugun boto-paper huts bat garen edota Gipuzkoako etorkizunean parte-hartzeko eskubideak dugun herritarrak garen”, zioten GuraSOSeko ordezkariak Donostiako agerraldian. “Otsailaren 19an zuk erabakiko duzu, zatoz!”, luzatu zieten gonbita gipuzkoarrei.

## Irtenbide adostuaren alde

“Gure ahotsa entzunarazteko” aukera emango digun manifestazio isila izango da hilaren 19koa, azpimarratu zuten, ez erraustegiaren ezta Foru Aldundiaren aurkakoa, hondakinen kudeaketaren gaiarentzat irtenbide adostua proposatzen duen GuraSOSen bide-orria babestearen aldekoa baizik. “Bide horretatik urruntzea akats bat litzateke. Norbaitek banaketa eta liskarra betikotu nahi baditu, ez du lortuko. Ez dugu nahi bide horretan jarraitu”, adierazi zuen guraso taldeak. Adostasunaren alde egon arren, herritarron eskubideak kalean eta auzitegietan irmo-



Otsailaren 19rako manifestazioa antolatu dute Donostian.

## AKORDIO ESKE

**Herritarron eskubideak kalean eta auzitegietan irmotasunez defendatzen segiko dutela iragarri dute. GuraSOSen azken helburua adostutako akordio bat lortzea baita**

tasunez defendatzen segiko dutela iragarri dute. “Oso argi izanik azken helburua lortzeko direla: adostutako akordio bat hondakinen kudeaketaren gaiaren inguruan”, zioten.

Herritarrak nahastuta, hase-rre eta minduta egotea ulergarria zaiela adierazi zuten. “Nor-

mala da, izan ere, urtarrilaren 31koa herritarrenganako mespretxua eta botere erakustaldia izan da, erakundeak gotorleku eta herritarrengandik urrun bezala ulertutako pentsamendutik egindakoa”, adierazi zuten GuraSOS taldeko ordezkariak.

## “Ez da ezer bukatu”

Baina lasaitasunerako eta pazientzia izateko deia egin dute. “Ez da ezer bukatu” diote. Frustrazioan erori ez eta gizarteak duen indarrarekiko konfiantza izatea eskatzen dute. “Harresi hori harriz harri deseraiki dezagun eta eraiki dezagun guztion artean etxe komun bat”, deitu dute.

## Botere judizialarekiko errespetu falta

Kezka agertu zuten Foru Aldundiko agintariak egiten ari diren botere erakustaldiaz, botere judizialarekiko erakusten ari diren errespetu faltatik. “Auzitegien eta Legearen gainetik beren burua jarriz. Epaiak ere zeintzuk izango diren aurreratzen dituzte”, salatu zuten. Gogorarazten zuten, “Auzitegiek boterearen praktika fiskalizatu, herritarren eskubideak babestu eta jokoaren arauak beterarazteko funtzioa dute. Funtzio horrek premisa bezala behar du bere independentzia errespetatzea”.

## Otsailaren 19an, manifestazioa Donostian

- Eguna: otsailak 19, igandea.
- Ordua: 12:00.
- Ibilbidea: Donostiako Artzai Onaren Katedrala, San Martin kalea, Foru pasealekua, “Republica argentina” kalea, Bulebarrak.
- Amaieran: “guztiok eskuak elkarri eman eta gora igoko ditugu, gizarte batasuna adierazteko asmoz”.
- Aldarria: “Elkarrekin gehiago gara. Adostasuna, besterik ez!”.
- Antolatzailea: GuraSOS.

## Erraustegiaren esleipena, sinatua

Jose Ignacio Asensio ingurumen diputatuak dekretu bidez sinatu du jada, Zubietako erraustegiaren esleipena. Ondoko irudian duzue Asensio irribarretsu, esleipena sinatu zuen unean. Aldundiak dituen aurreikuspenak betetzen badira, hilabete eta erdi barru inguru hasiko dituzte erraustegiko eraikitze lanak. 30 hilabeteko tartean amaitzea aurreikusten dute. 2019ko udal eta foru hauteskundeetarako eraikia eta probetan izatea nahi dute.



2019rako eraikia eta probetan izatea nahi dute.

# Beterri-Buruntzako ekonomiaren erradiografia bat

**B**eterri-Buruntzan sustapen ekonomikoa eta enplegua bultzatzeko hitzarmenaren berri eman genuen aurreko astean. Baina zer nolako eskualdea dugu? Eta zer nolako premiak ditu? Miren Estensoro Orkestra lehiakortasun institutuko ikertzaileak eta Nerea Yurrebaso Andoaingo udal teknikariak Beterri-Buruntzako egoeraren adierazle batzuk eskaini dizkigute.

Iazko abenduan, TOKI-KOM-ek antolatutako mahai-inguru batean Miren Estensoro eta Nerea Yurrebaso adituak batu genituen. Eskualdeko indarguneak eta ahulguneak, nazioartekotzea edota etorkizunerako erronkak aztertu zituzten Andoaingo Basteron eginiko agerraldian. Lehiakortasunari dagokionez, eta Gipuzkoako beste eskualdeekin alderatuta, gurea erdibideko mailan dela dio Miren Estensorok. Eta horretarako hainbat datu erabili zuen.

## Langabezia tasa, %10 eta %12 artean

Besteak beste, barne produktu gordina (32.000 euro per capita) edota langabezia tasa (10-12%): “Eskualdea, 70.000 biztanlerekin, erdibideko lehiakortasun mailan dago Gipuzkoako beste eskualdeekin alderatuta. Ezaugarri nagusia dibertsifikazioa da; ez dago sektore espezializazio garbirik. Denetik du pixka bat. Horrek irakurketa negatiboa izan dezake. Hau da, lehiakor den bitartean ondo ibiliko da, baina zailtasunak sortuz gero, azkar batean ataka estuan jar daiteke. Alde positiboa, historian zehar moldatzeko erakutsi duen gai-



“Kualifikazio maila handiko postuetarako, lanbide heziketako formakuntza duten langileak beharko dira”.

### MIREN ESTENSORO

**“Ez dago sektore espezializazio garbirik. Horrek irakurketa negatiboa izan dezake. Hau da, lehiakor den bitartean ondo ibiliko da, baina zailtasunak sortuz gero, azkar batean ataka estuan jar daiteke”**

tasuna da”. Nerea Yurrebasok, eskualdeko ikuspegitik, oso gertutik jarraitzen du Estensorok egiten zuen erradiografia

hori. Eta datu gehigarriak eskaini zituen: “Gure eskualdean espezializazioa ez dago oso sakonduta, ez. Metala, energia, petrokimika edo plastikoa..., denetik dugu. Ez da tamainan sektore handia, eta gainera krisiarekin tamainan txikituz joan dira eta hori nazioartekotzeari begira, adibidez, eragozpen handia da. Orain arte egin dugun lan gehiena gure enpresak aztertu eta etorkizunera begira jartzen saiatzea izan da. Digitalizazio prozesuan edota 4.0 fabrikazioan, esaterako, etorki-

zueneko metalgintza eta manufaktura eredu berria garatzen hasteko gabeziak ditugu”.

## Langileen kualifikazio maila handitzeko premia

Kualifikazio maila handitzea etorkizuneko erronka izango da: “Eskualdeko enpresek manufaktura aurreratuan urratsak emateko aliatuak edota bidelagunak aurkitu beharko dituzte. Gipuzkoa eta Euskal Herria txikiak dira eta saretzea ezinbestekoa izango da. Horixe bultzatu beharko genuke eta horretarako erabakiak hartu beharko lirarteke. Horri lotuta, eskualdean lanbide heziketa puntakoa da, eta horren balioa azpimarragarria da. Kualifikazio maila handiko postuetarako, besteak beste lanbide heziketako formakuntza duten langileak beharko dira. Balioan jarri behar da hori. Alemanian, esaterako, lanbide heziketako ikasleak garrantzia handikoak izan dira digitalizazio prozesuan”.

## “Garapen agentziaren ikuspegiarekin dinamika berria abiatu da”

Miren Estensoro Orkestra lehiakortasun institutuko ikertzailearen analisiari erreparatuta, erronkak askotxo dira: “Oraindik orain, eskura dauden datuek ikerketa eta garapenari bideratutako gastuan eskualdea Gipuzkoako batz bestekoaren azpitik dagoela adierazten dute. Datu on modura, garapen agentziaren ikuspegiarekin dinamika be-

rria abiatu da. Zein eskualde nahi den partekatzeko nahia agertu da. Gainerako eskualdeetan egin bezala, bertan ere agentzia martxan jartzeko une ona da”. Bidea elkarrekin egin beharra dagoelako, hori oso garbi adierazi zuen Yurrebasok: “Eragile guztiekin tokiko garapena lantzen hasi gara, eta oso inportantea da guretzat esperientziak parte-

katzea. Zein behar ditugun ikusi eta etorkizuna nola landu, horixe da erronka nagusia. Zeren eta etorkizuna, bai ala bai, denon artean eraiki beharko dugu. Garapen auto zentratua deritzona landu beharko dugu, ditugun beharren arabera tokikoa indartzen saiatu beharko dugu. Eta horretarako elkarlana gakoa da”.

# “Nolako eskualdea dugu? Nolako eskualdea nahi dugu?”

**T**OKIKOMeko hedabideok Andoaingo Basateron antolatu genuen mahai-inguruan, Nerea Yurrebasok eskualdeko errealitate ekonomikoa azaldu zuen.

## Nolako eskualdea dugu?

- Ezaugarri anitzeko, elkarren artean oso ezberdinak diren enpresez osaturikoa da.
- Malgua, garaian garaiko testuingurura moldatzen jakin duena.
- Moldagarria, etorkizunera egokitzeko gaitasuna eta jarraera erakusten duena.
- Saretu gabeko eskualdea da, bakoitza bere bidean doa elkarren berri izan gabe eta norabidea konpartitu gabe. Aurrerapausoak elkarrekin ematea izugarri kostatzen zaio, baina era berean, geldirik ez dagoena, eta etorkizunari aurrea hartzeko prest dagoena.

## Nolako eskualdea nahi dugu?



Nerea Yurrebaso teknikariak Beterri-Buruntzako errealitate ekonomikoa aztertu du.

### NEREA YURREBASO

**“Eskualde izaera errotu beharko litzateke, beste eskualdeetara irekita eta harrera egiteko prest egongo dena”**

- Garapen jasagarria eta bertako biztanleen ongizatea

bermatuko dituen eskualdea beharko genuke.

- Zerbitzu eta tresna sare eraginkorrak eskaini beharko litzuzke.
- Eskualdeko eragileen arteko harremanak landu beharko lirateke, elkarlanean eta sarean lan egingo duena.
- Talde ikuspegi zabalarekin eta ikuspegi estrategikoarekin lan egiteko gaitasuna garatu beharko litzateke, garaian garaiko beharrei erantzungo diona.
- Pertsonen gaitasunak eta aukerak handituko dituen eskualdea izatea lortu beharko genuke.
- Eskualde izaera errotu beharko litzateke, era berean beste eskualdeetara irekita eta harrera egiteko prest egongo dena.
- Berrikuntza eta sormena etengabe garatzea.
- Hizkuntza, kultura eta lurraldea bera balioan jartzea.

## Gazte enplegua sustatzeko xedez, Hazilan proiektua abiarazi dute

Langabezia-egoeran dauden 20 urtetik 35 urtera bitarteko gazte kualifikatuak laneratzeko proiektua da Hazilan. Programa honetan parte hartu nahi duten enpresek edo gazteek web orrialde honetan lor dezakete informazio guztia: [www.hazilan.eus](http://www.hazilan.eus). Edota Andoaingo Udalean: Urigain etxea. La Salle etorbidea, 6. 20140 Andoain. 943 304 221.

[hazilan@andoain.eus](mailto:hazilan@andoain.eus)

Gazte enplegua sustatzeko, Garapen Agentzien Euskal Elkartek 6.000.000 euroko ekarpena egin du. 2014-2020 aldirako Euskadiko Programa Operatiboan kokatzen da proiektua, eta Europako Gizarte Funtzak finantzatzen du %50ean, eskualde-garapeneko 20 agentzien parte-hartzearekin.

## Izen-ematea

Hazilan programan izena emateko epea martxoaren 15ean amaituko da.

# Etorkizunerako gakoak

## Gizarte berrikuntza kontuan hartzea

Eskualdeko enpresa guztietara helaraztea: 4.0 ekoizpena, ekonomia zirkularra, adimen lehiakorra, merkatu globalak vs tokiko kateak, gizarte erantzukizuna, ekonomia soziala eta feminista, pertso-

nen partaidetza enpresetan...

## Foro sektorialak sustatzea

Lankidetzaz egitasmoak aztertu eta garatzeko bilkurak sustatzea, hala nola, fabrikazio foroa, turismo eta merkataritza-ostalaritza foroa, lehen sektoreari bideratutako foroa,

eta abar.

## Ikuspegi sozialarekin lan egitea

Behar sozialak ikusita enplegu soziala sustatu behar da, eta ihes egiten digun talentuari ahalik eta gehien eustea. Gure langilego gaztea

prestatuta dago, baina bertatik kanpora joaten da lan bila. Adinekoen, etorkinen, gazteen, emakumeen eta epe luzeko langabetuen beharrak aztertu eta euren jakinduria hobeto aprobetxatzeko moduak aurkitu beharko genituzke.

**Patrimonia**  
Jatetxea

bazkariak EGUNERO  
afariak, asteazkenetik larunbatera

☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
☎ 943 370 008

**ESKAIOLA eta PLADUR**  
Joxean Elorza  
699426042  
USURBIL

talak  
36-60

**INQUIETUD**  
JANTZI-DENDA

Nagusia 49, LASARTE-ORIA

# Euskaraz gidatzen ikasteak, 400 euroko saria du Buruntzaldean

**B**uruntzaldean gidabaimena euskaraz ateratzeko saria dakar. Sari potoloa, 400 eurokoa, zati teorikoaren gastuei aurre egiteko ezinhobeto datorren laguntza. Laguntza hau Buruntzaldeko Udaletako euskara zerbitzuek ematen dute. 2010az geroztik, eremu hau ere euskalduntzen dihardute eskualdeko autoeskolarekin elkarlanean. Argi dute, orain arte jorratu duten bide honetan sakontzen segi beharra dago. Apustua urtarrilaren 27an Urnietako Lekaio kultur etxean egindako ekitaldian berretsi zuten.

Azken bi urteotan beherakada izan dela diote, gidabaimenaren zati teorikoa euskaraz atera duten eskualdeko ikasle kopuruan. Iaz 95 izan ziren, 2014an 140. Horren atzean arrazoi ezberdinak daudela uste dute; batetik autoeskola bat gutxiago dagoela egun eskualdean. Gazteen egoera ekonomikoa ere aintzakotzat hartu behar dela diote. Baita, merkeagoa izanik, geroz eta gazte gehiago direla gidabaimena online bidez ateratzen dutenak erdaraz, euskaraz egiteko aukerarik ez baita. “Bide hori ere jorratzen joan beharko dugu”, adierazi zuten Buruntzaldeko udal ordezkariak.

## Jarraipena izango du

Halere, oso baikor baloratzen dute egitasmo hau eta emaitza onak dituela ikusita, eragiten segi beharra dagoela diote. Horretarako hamaika arrazoi baitaude proiektu honen sustatzaileen esanetan. Batetik, autoeskolak egiten duten ahalegina babesten segitzea beharrezkotzat jotzen dute. Gogoan izan, Buruntzaldeko autoeskola guztiek parte hartzen



**Gazteek ikasketak euskaraz egin ditzaketenez, garrantzitsua iruditzen zaie gidabaimena ere hizkuntza berean eskuratu ahal izatea. Buruntzaldeko Udalek gidabaimenaren zati teorikoa euskaraz prestatu eta gainditu dutenen artean, 400 euroko 10 sari zozketatu dituzte. Naroa Alustiza usurbildarra izan da sarituetako bat.**

## GIDA BAIMENA EUSKARAZ

**Buruntzaldeko autoeskola guztiek parte hartzen dute egitasmo honetan. 400 euroko 10 sari zozketatu dituzte aurten. Autoeskola bakoitzeko, bana**

dute egitasmo honetan. Bestalde, gazteek ikasketak euskaraz egin ditzaketenez, garrantzitsua iruditzen zaie gidabaimena ere hizkuntza berean eskuratu ahal izatea, “gazteentzako balore garrantzitsua da”. Eta laguntza ezinhobea da urtero, gidabaimenaren zati teorikoa euskaraz prestatu eta gainditu dutenen artean, gastuei aurre egiteko banatzen duten dirutza. 2016an zehar gidabaimena zati teorikoa euskaraz prestatu eta gainditu zutenen artean 400 euroko 10 sari zozketatu zituzten hilaren 27an. Udallerri bakoitzean dagoen autoeskola adina sari, 4.000 euro guztira.

Albiste honetan beherago duzue sarituen zerrenda. Naroa Alustiza izan zen Usurbilgo saritua.

2017an segida emango diote kanpainari. Informazioa eskuragarri izango duzue buruntzaldea.eus atarian. Honez gain, eskualdeko hedabideok gai honi buruzko publiekurreportaje zabala landuko dugu urte honetan zehar.

## 400 euroko 10 sari

- Andoain: Ainara Paredes (Mendi) eta Xabier Iburguren (Bengoetxea).
- Astigarraga: Aritz Lopez (Otamendi).
- Hernani: Lide Redondo (Hernani), Andoni Saizar (Otamendi) eta Leire Sevillano (Otamendi).
- Lasarte-Oria: Leire Tejedor (Mugika) eta Maider Zuriarrain (Mugika).
- Urniet: Beñat Lizaso (Solozabal).
- Usurbil: Naroa Alustiza (Solozabal).

## Buruntzaldeko 10 autoeskolak ari dira parte hartzen

- Andoain: Bengoetxea eta Mendi.
- Hernani: Hernani, Lagunak eta Otamendi.
- Lasarte-Oria: Izarra, Lasarte eta Mujika.
- Urniet: Solozabal.
- Usurbil: Solozabal.

## Buruntzaldean gidabaimena euskaraz atera dutenen bilakaera

Urtea	Kopurua
2010	34
2011	60
2012	112
2013	135
2014	140
2015	113
2016	95

Egitasmoaren sustatzaileak: Buruntzaldeko udaletako euskara zerbitzuak eta eskualdeko autoeskolak.



# Naroa Alustiza: “Nahiago nuen euskaraz, betidanik hala egin dudalako”

**N**aroa Alustiza izan da Buruntzaldeko Udalek eta autoeskolek eginiko urteroko zozketan, iaz gidabaimena euskaraz ateratzegatik saritu duten usurbildarra. Pozik agertu da egin diogun elkarrizketan jaso duen diru-laguntzagatik, baina argi utzi digu ez dela izan gidabaimena bere ama hizkuntzan ateratzera bultzatu duen arrazoi nagusia.

## Zergatik erabaki zenuen gidabaimena euskaraz ateratzea?

**Naroa Alustiza:** Nere adinekoekin alderatuta, urtebete beranduago atera nuen. Koadrilakoek informatu zidaten badela diru-laguntza bat. Baina ez da izan hori gidabaimena euskaraz ateratzeko arrazoi. Txikitatik euskaraz ikasidut guztia eta erdaraz egitea zailago egin zait beti. Jendeak esaten du gidabaimena erdaraz prestatzea errazagoa dela, beti entzuten ditugula hitz teknikoak erdaraz. Baina nik nahiago nuen euskaraz, betidanik hala egin dudalako.

## Zer moduzkoak dira gidabaimena ateratzeko dauden euskarazko baliabideak?

Teoria guztia jasotzen duen liburu bat ematen dute euskaraz autoeskolan. Horrez gain, autoeskolan bertan egin ditzakezun testak dituzu edo etxean zure kontutik Internet bidez egitekoak. Nik autoeskolan



Xuban Zubiria euskara zinegotzia eta Naroa Alustiza ikasle saritua.

## NAROA ALUSTIZA

**“Teoria guztia jasotzen duen liburu bat ematen dute euskaraz autoeskolan. Horrez gain, autoeskolan bertan egin ditzakezun testak dituzu edo etxean zure kontutik Internet bidez egitekoak”**

egin nituen, hartara irakasleak edozein zalantza argitzen zidan.

**Zati praktikoak euskalduntze-**

**ke segitzen du. Teorikoa euskaraz egitetik praktikoa erdaraz egitera igaro zinen. Nolakoa da jautzia?**

Hasieran arraroa egin zitzaidan, zati teorikoa euskaraz landu eta gero praktikoa erdaraz egin beharra izatea. Ez zegoen inor euskaraz zekienik.

**Zati praktikoa gainditzeko, azken aldian aztertzaile kopuruan egon den murrizketak eragin dizu?**

Hasiera batean haserre sentitu nintzen, lehenengoan atera nahi bainuen eta bigarren aldiz azterketa egin ahal iza-

teko normalean astebete beranduago izaten dela diote. Baina hilabete itxaron behar izan nuen. Lehen azterketa azarora hasieran egin nuen eta bigarrena abenduaren 26an. Beldurtuta nengoen pixka bat. Bigarrenengoan gaintitu izan ez banu, auskalo zenbat denbora itxaron beharko nuen. Klaseak gehitzen doaz, gastua ere bai eta kezkatzekoa zen azkenean.

## Gidabaimena lanerako behar zenuen?

Besterik gabe. Gaur egun atera behar den gauza bat denez, zenbat eta lehenago eskuratuta hobe.

## Gutxieneko zerbitzuak Euskotrenen

Lan uzte gehiago iragarri dituzte asteotarako, Zumaia-Donostia eta Lasarte-Oria-Hendaia lineetan. Ez egun osoz, ordu tarte zehatzetan baizik:

■ Otsailak 9 eta 27: 7:25-9:35/18:25-20:35.

■ Otsailak 11: 11:55-16:05 (Lasarte-Hendaia linean soilik).

■ Otsailak 13, 15, 17: 6:25-8:35/17:25-19:35.

■ Otsailak 21, 23: 6:55-9:05/17:55-20:05.

## Informazio gehiago:

euskotren.eus

902 543 210

@euskotrenEJGV (Twitter)

# ELORZA

O BRAK ETA  
ER REFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL

jon.elorza@hotmail.com

# txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Herritzartu: “Herritarron garaia da”

**A**rgi eta ozen adierazi zuten igandeko deialdira batu zirenek: “Herritarron garaia da”. Herritzartu taldeak maiatzaren 7rako iragarri duen galdeketa babesteko, 400 lagun batu ziren. Galdera adosteari ekingo diote orain.

“Eguraldi txarrari aurre eginez, iragan eta ideologia ezberdineko 400 herritar elkartu gara, batzen gaituen etorkizunaren alde; erabakitze eskubidearen alde eta maiatzaren 7ko herri galdeketa babestuz”, adierazi zuen Herritzartuko ordezkariak. Orain arte jasotako atxikimenduen lehen fasea borobiltzeko ekimena izan zen aurreko igandekoa. Herri plataformatik berri eman dutenez, 600 herritar baino gehiagoren eta 29 herri eragile ezberdinen babesa jaso dute jada. “Orain arte ekimen honen aldeko babesa biltzen aritu gara, 600 herritar baino gehiagoren sinadura eta herriko 29 eragile ezberdinen (alderdi politikoak, eragile kulturalak, komertzio elkarteak, kirol taldeak, elkarte gastronomikoak, auzoetako jai batzordeak, guraso elkarteak, eta abar) atxikimendua jaso dugularik”.

## Galdera, adostasunez

Hau hasiera baino ez dela gogorarazten dute. “Asko gara eta pozik gaude, baina gehiago izan nahi dugu”, diote. Atxikimenduak biltzeko epeak zabalik segiko du datozen hilabeteotan, baina aldi berean, maiatzaren 7ko galdeketa antolatzen segitzeko urrats berriak ematen hastera doa Herritzartu. Hilaren 5eko argazki erraldoiarekin bigarren faseari ekingo diote orain; galdera adosteari. Lanketa honetarako hilabete pasatzoko tar-



600 herritar baino gehiagoren eta 29 eragile ezberdinen babesa jaso dute Herritzartukoek.

## HERRITZARTU

**“Maiatzaren 7ko galdera adosten hasiko gara hemendik aurrera. Martxoaren 19rako galdera erabakitzea da gure asmoa”**

tea hartuko dute. “Maiatzaren 7ko galdera adosten hasiko gara hemendik aurrera. Martxoaren 19rako galdera erabakitzea da gure asmoa. Badugu lana, denontzako egongo da zer egina”, iragarri dute.

## Lan talde ugari

Maiatzaren 7an herri honetan ospatuko den galdeketa antolatzeko lan talde ezberdinak osatu dira. Herritar

ororentzat irekiak dauden lan taldeak. Hurrengo hilabeteetako prozesua, auzolan erraldoia izatea nahi dute. “Etorri gure bileretara, ateak zabalik daude eta denontzako egongo da zer egina. Gurekin harremanetan jarri besterik ez duzue”, adierazi dute. Egunotan biltzen dira taldeok:

- Galdera adosteko taldea: asteartea, 19:00etan.
- Komunikazio taldea: asteartea 20:00etan.
- Ekintzak antolatzeko taldea: asteazkena 18:30ean.
- Finantziazioa: asteazkena 18:30ean.
- Ekimen gehiago ari dira antolatzen herri eragileekin elkarlanean. Aurrerago zehaztasun gehiago eskainiko dituzte.

## Hurrengo deialdiak

- Otsailak 18, larunbata: mus eta toka txapelketa Aginagako Eliza Zaharrean.
- Martxoak 19, igandea: 35 herritan galdeketa egingo dela aprobetxatuz, Usurbilgo galdeketarako galderaren aurkezpena jai giroan.
- Ekimen gehiago ari dira antolatzen herri eragileekin elkarlanean. Aurrerago zehaztasun gehiago eskainiko dituzte.

## Informazio gehiago:

Facebook:  
Gure Esku Dago Usurbil  
Twitter: @GureEskuDagoU  
E-posta:  
usurbilgureeskudago@gmail.com



Herri argazkia egin baino lehen, egunotan Katalunian epaitzen ari diren politikariei elkartzasuna azaldu zitzaien.



**Klik! batean**

## **‘Kanta zaharra’, umezurtz**

*Alkate jauna, legean gatoz  
baimen eskean atera,  
kanta zaharrak galdu ez ditezen  
lehengo ohitura piztera.*


Santa Ageda abestiak hala dio azken ahapaldian. Aurten, ordea, koplak zaharrak berri gabe geratu dira. Arrazoi ezberdinak tarteko, ez da talderik osatzerik izan. Iazko saio batekoa da argazkia.

Argazkia: Ion Markel



# Negu giroan ere, 'Bizi Kalea'

EGURALDIK LAGUNDU EZ ARREN, JENDE UGARI IBILI ZEN HURBILAGOREN FESTAN



The Hastelen's, Huntza eta Zaparra taldeek girotu zuten Hurbilagok antolaturiko 'Bizi Kalea' festa.

# Mozorro festarako bi aste geratzen dira

Hasi prestatzen mozorroak, bi aste baino ez baitira falta Inauteri Festarako Usurbilen. Aurretik, Zubietan ospakizunak iragarri dituzte otsailaren 18rako. Zubietako herritarrek, Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkar-tearekin elkarlanean antolatutako ospakizun egun hau:

## Otsailak 18, larunbata, jai giroa Zubietan

11:00-13:00 Elkarrean zehar puska bila (Lasarte-Orian).

16:00 Ekitaldia Zubietako plazan.

16:15 Zubietatik Okendora kalejira.

16:30 Lasartearren harrera: lasarte oriatarrek zubietarrei gondabipen dantza eta zubietarren erantzuna.

17:00 Zubietarren eta lasartearren senidetze dantzaldia.

17:30 Kalejira herritik.

18:30 Erromeria eta suaren ekitaldi berritua.

Amaitzeko, txokolatada goxoa plazan.



Otsailaren 25ean, Inauteri Jaiak Usurbilen. Bezperan, Udarregi ikastolako ikasleak izango dira mozorrotuko direnak.

## Otsailak 24, ostirala Mozorro festa Udarregin

Goizean zehar, Udarregi Ikastolako kalejira eta "Zaborra ere gurekin dantzan" ikuskizuna Oiardo Kiroldegian.

19:30-20:30 Orbeldi Dantza Taldekoen kalejira Oiardo Kiroldegitik. Amaiera, Mikel Laboa plazan.

## Otsailak 25, larunbata Inauteri Festa

Gaia: "Ingurumena".

12:30 Kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuta.

12:30 Burrunbazale txaranga-ekin kalejira frontoitik abiatuta, bazkal ordura arte.

16:00 Karaoke festa Gaztelekuan. Mozorrotuta etorri!

17:00 Burrunbazale txaranga-ekin eta Lauburu, Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa erraldoi txiki, handi eta buruhandien kalejira udaletxetik abiatuta.

19:00-21:00/23:00-01:30 Kankhar musika jartzailea frontoian.

Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea.

## Udarregi ikastolako gurasoen parte hartzea hobetzeko ekimen berri bat jarri da martxan

Parte hartzea hobetzeko asmoz, Udarregi ikastolako guraso batzuk ekimen bat abiatu dute. Horri buruzko informazio osatua web orrialde honetan topatuko duzue: [biziberritu.wixsite.com/hasiera](http://biziberritu.wixsite.com/hasiera)

Urtarrilaren amaieran eta otsaileko lehenengo asteetan ikasmilla bakoitzeko gelabileretan honen berri eman zaie gurasoei.

Ekimen honen bidez, gurasoen parte hartzea ahalbidetzeko proposamen bat luzatu dute. "Gure asmoa 2016-17 ikasturte honetan prozedura hau abiatzea da, baina horretarako gurasoen inplikazioa behar da. Gurasoek bultzatuta, gurasoentzako".

Web orrialde honetan, besteak beste, maiatzean egingo den ikastolako Batzar Nagusian erabakitzeak gaiak pro-



[biziberritu.wixsite.com/hasiera](http://biziberritu.wixsite.com/hasiera) web orria zabaldu dute.

posatzeko aukera dago. Proposamen horiek egiteko epeak otsailaren 25a arte iraungo du.

## Lan poltsa osatu nahi dute Aginagan

Aginagako Guraso Elkarrean begirale lan-poltsa osatu nahi du. "Aginagan antolatzen diren Gabonetako, Aste Santuetako eta udako txokoetarako eta baita goizetako zaintza zerbitzurako ere. Bidali zuen kurrikulua aginaga@eskolatxikiak.org emailera otsailaren 28a baino lehen".

## Otsailaren 15ean, literatur solasaldia Sutegin

Otsailaren 15erako iragarri dute, ohi bezala, iluntzeko 19:00etan Sutegi udal liburutegian. Gazteleiaz izango den datorren saioa, Ana Merino herritarrek bideratuko du. "Aldez aurretik ez da ezer irakurri behar, eta sorpresa, egunean bertan, Liburutegian bertan argituko da", ohartarazi dute Sutegitik.

## Landaberriren 50. urtemugako antzezlanerako sarrerak

Hastapenetan lasartearrekin batera, Usurbilgo eta usurbildarrena ere izan zen Landaberri Ikastola 50 urte bete zituen iaz. Udazken partean hainbat ospakizun bideratu zituzten. Tartean, antzezlan bat ere sortu eta plazaratu zuten: "Landaberri Ikastola 50 urte" izenekoa. Otsailaren 24ean, Sutegin ikusi ahalko dugu, gaueko 22:30etan hasita. Emanaldirako sarrerak doakoak izango dira, baina aretoak eserleku kopuru mugatua duenez, gonbidapenak banatuko dira. Gonbidapenok, aldez aurretik Udarregi Ikastolan eskuratu ahalko dira, eta emanaldi egunean bertan, saioa baino ordu erdi lehenago Sutegin.

# Xuban Errazkin: “Urte on baten saria izan da”

Profesional mailara jauzi egin berri du Xuban Errazkin Perez usurbildar txirrindulariak, Portugalgo Radio Popular Boavista taldearen eskutik. Denboraldi berriari ekiteko gogotsu da Xuban. Aurreko ostiralean izan zuten taldeko aurkezpena. Bidera irtengo da orain; probez jositako egutegia baitu datozen hileotarako.

**Iaz Portugalgo itzuliko etapa bat irabazi, Italian proba moduan aritu gero, Portugalera itzultzeko... Gertakari kate baten emaitza da fitxaketa?**

**Xuban Errazkin Perez:** Portugalen irabazteak Italian probatzeko txartela eman zidan iaz eta nahiko ondo atera zen. Beste eskaintza batzuk banituen baina Portugalgoak konbentzitu egin zidan. Portugalgo Itzuliko etapa bat irabazteak aukera eman dit baita talde honetara joateko. Abenduan egon nintzen beraiekin kontzentrazioan, taldeko dinamika ezagutzen.

**Urte mugitua izan duzu.**

Iaz denboraldia Zarauzko taldean hasi nuen, 23 urtez azpikoen mailan. Lasterketetan irabazten hasi nintzenez, Baque taldearekin urte erdiz



Denboraldia profesional mailan hasi du usurbildar txirrindulariak. Aurreko astean, Rádio Popular Boavista taldearekin Abertura proban aritu zen.

## XUBAN ERRAZKIN

**“Beste eskaintza batzuk banituen baina Portugalgo Boavista taldekoak konbentzitu egin zidan”**

egutegi hobea izateko aukera izan nuen. Hortik haiekin joan nintzen Portugalgo Itzulira. Lau bat hilabete egin nituen haiekin eta gero Italiara pasa nintzen proba moduan. Sari modukoa izan da, urte on baten saria.

**Talde berriari buruzko ze erre-**

**ferentzia dituzu?**

23 urtez azpikoen maila 4 urte dira, eta gero eliteen maila dago. Profesional mailan sartzen dira biak. Taldeko 23 urtez azpiko mailako bakarra naiz. Beste guztiak elite mailakoak dira. Espainiako Itzulian parte hartu duen txirrindulari bat bada, jende heldua, esperientziaduna. Haiengandik ikastea tokatuko zait. Taldera egokitzea.

**Zer nolako egutegia duzue?**

Otsailaren 3an izan genuen aurkezpena, hilaren 5ean Klasika bat eta han debutatu nuen. Lehenengo bi klasika izango ditut eta gero Algarve-

ko Itzulian parte hartuko dut. Maila handiko lasterketa da. Ia aukera ematen didan taldeak bertan parte hartzeko, azkenean zortzi doaz itzulian parte hartzera eta gehiago gara taldean. Alentejoko Itzulia dugu Portugalen baita. Espainia aldean ere probak izango ditugu; Miguel Indurain Klasika, Asturiasko Itzulia, Ruta del Sur... Portugalgo Itzulia, taldearentzat proba izarra. Egutegian proba faltarik ez dugu izango behintzat.

**Gogotsu, urduri etapa berri honi begira?**

Kategoria aldaketagatik urdurtasunik ez dut hainbeste, baina beti errespetua ematen du. Eta hasteko gooa dut bai.

**Azken hileotako aldaketek, goitik behera aldatuko zuten zure bizimodua?**

Italiara joan nintzenez, jada eskaintzak nituen aukerak ikusi nituen jada kategoriaz aldatzeko. Printzipioz bizimodu normala izan dut. Aurtentzen oporraldi hobea izan dut. Ederki etorri zait, gero ehuneko ehunean hasteko. Benidormen egon naiz kontzentrazioan prestatzen eta orain Portugalera noa.

## Sei urte egin zituen Buruntzazpi Eskolan, eta “jubeniletan talde nafar batera igaro nintzen”

**NOUUA!** Etxekoak aipatuta, txirrindularitzari loturiko famuliatik zator zu. Zer diote orain bizitzen ari zaren uneari buruz? **Xuban Errazkin.** Pozik dira. Aitarengandik hasita, txirrindulari izan dela, bizikleten denda duen osabak ere asko lagundu dit bizikleta puntuan izaten beti, aholkuak emanez. Azkenean denak pozik, familia osoa.

**Zein da gehien errepikatu dituzuen aholkua?**

Lehenengo bizikletaz gozatzea. Serio hartu behar denez serio hartzea, baina lehenbiziko gauza da bizikleta gustatu behar zaizula eta gozatzea.

**Zure ibilbidearen zati bat etxetik gertu Buruntzazpin egin duzu. Zer ekarpen egin dizu? Buruntzazpi baino urtebete le-**

henago Andoaingo eskolan hasi nintzen. Urtebete egin nuen, Usurbilen ez baitzen eskolarik. Hortik aitzak Ramon Unanue bere prestatzaile izandakoari esan eta hurrengo urtean Usurbilen ireki zuten eskola. 6 urte egin nituen bertan, jubenilak arte. Jubeniletan talde nafar batera igaro nintzen, hortik Zarautz, Baque, Willier taldeetan eta orain Portugalen nabil.



**Bi klasika eta Algarveko Itzulia egingo ditu denboraldiaren lehen zatian.**





**Aginagako, Usurbilgo eta Zubietako gazteak**

# Proiektu alternatiboaren sortze bidean, bilera irekia

**E**uskal Herriko gazte mugimendua mar-txan da. Gazteek bizi dituzten arazo ezberdinen aurrean Alternatibak sortzeko garaia heldu zela adostu zuten 2015eko abenduan Añorgako Firestoneen ekin zioten prozesu luze zein interesgarrian. Urtebeteko lan trinkoaren ostean, pasa den abenduko GAZTERAIKI topaketek Euskal Herriko gazte mugimendua indarberrituta atera zuten Barañainetik. Usurbilgo hainbat gazte ere bertan izan ginen, eta orain, gurera alternatiba horien eraikuntza lanak ekarri nahi ditugu.

2016ko azaroaren 18an egin genuen Potxoenean "Eraikuntza lanetan ari gara" dinamikaren aurkezpena, eta Usurbilgo Ernaik herriko gazte eragileekin osatutako diagnostiko txostena aurkeztu zigun bertaratutako gazteoi. Bertan azaldu ziren gaur egun herriko gazteek dituzten kezka eta hutsune nagusiak. Horiei erantzun bat emateko garaia dela ondorioztatu genuen, eta lanari ekiteko prest gaude.

Gazteok, Alternatiba hauen eraikuntzarako, autogestioa izango dugu oinarri. Hau da, guk geure bizitza ekonomiko, politiko, kultural zein soziala-



Otsailaren 17rako bilera irekia antolatuta dute: 17:00etan Potxoenean.

## DEIALDIA

***"Hamaika dira lan ildo bakoitzean aurrera eraman daitezkeen proiektuak, eta herrian ditugun gabeziei aurre egiteko, Usurbilgo gazteok proiektu horiek definitzen hastera goaz otsailaren 17an, 17:00etan Potxoenean egingo dugun bilera irekian"***

ren gainean erabakiak hartu eta errespetarazteko biderako konpromisoa hartu nahi dugu. Gazteok ere herriko errealtatean zeresana badugulako.

Hala, GAZTERAIKI Topaketetan zenbait usurbildarrok Euskal Herri mailan sortzen ari ziren hainbat proiektu gertutik ezagutzeko aukera izan genuen. Proiektu hauek gazteoi

eragiten diguten problematika ezberdinen aurrean sorturiko erantzunak dira, gai orokor hauetan barnebiltzen direlarik: jai ereduak, hezkuntza, lana eta prekaritatea, sorkuntza, feminismoa, autodefentsa, elikadura burujabetza, etxebizitza, euskara, kirola eta jarduera fisikoa, komunikazioa... Honela, 2016ko abenduko bilgune handi horren helburu nagusia proiektu horiek osatu eta errealitatean ekartzeko ditugun aukerak aztertzea izan zen. Hots, bertan aurkeztutako proiektuekin eta Topaketetan parte hartu genuen gazteon ekarpenekin, "Gu geu gara alternatiba" izeneko txostena osatu zen, non Euskal Herriko txoko guztietara hedatzeko asmoarekin lan ildo bakoitzak egindako lanketa deskribatzen den. Hona hemen ikusgai:

<https://issuu.com/gazteokeraitzen/docs/gugaraalternativa>

## 'Konpromisoen gida'

Adibidez, jai-ereduen kasuan, "Konpromisoen gida" osatu da jai herrikoiek barnebiltzen dituzten eremuetan pauso berriak ematera bidean, jai herrikoien alde lan egiten duten kolektiboentzako konpromisoak zehaztuz (musika, zaborra, euskara, harremanak eta erasoak... nola kudeatu azaltzen ditu). Edota komunikazioaren lan ildoan, gazte problematikari erantzungo dion eta bere baitan gazte esparru zabala hartuko duen formakuntza zein entrenamendurako euskarazko tresna izango den gazte telebista sortze bidean da.

## "Baditugu alternatibak sortzeko baldintzak"

Hamaika dira lan ildo bakoitzean aurrera eraman daitezkeen proiektuak, eta herrian ditugun gabeziei aurre egiteko, Usurbilgo gazteok proiektu horiek definitzen hastera goaz otsailaren 17an, 17:00tan, Potxoenean egingo dugun bilera irekian.

Bertaratzeko gonbita luzatzen dizugu, Usurbilen ere gazteok baditugulako kezka eta ezintasunak, ametsak eta beldurrak. Baditugu beraz, Alternatibak sortzeko baldintzak.



EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITARTEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA

**943 36 91 39**

[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)



# Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

## Kultur eragileak batzartu egin dira



Otsailaren 2ko Kultura Aholku Batzordean herriko talde ezberdinak elkartu ziren.

Usurbilgo Udalak eta kultur eragileak biltzeko garai bateko ohitura berreskuratu zuten otsailaren 2an ospatu zen Kultura Aholku Batzarrarekin. Diru-laguntzez, edo udal materiala erabiltzeko irizpideez gain, Elhuyar nahi duten Usurbilgo kultur eta kirol eragileekin elkarlanean lantzekoa den “Zirrara: diru-laguntzen inpaktua neurtzeko metodologia” proiektua aurkeztu zuten.

### Diru-laguntzen oinarriak argitaratzeaz

Kultur, gizarte zerbitzu, kirol, nekazaritza eta abeltzaintza

### JAI BATZORDEA, MARTXAN

**Festetan ekimenen bat antolatu asmo duten norbanako nahiz eragileei zuzenduriko lehen bilera irekia deitu du Jai Batzordeak. Santixabel jaietako egunak ere zehaztuko dira otsailaren 13ko bileran: 18:00etan Potxoenean**

eta ingurumen arloko egitasmoak bideratzeko udal diru-laguntzen oinarriak onartu zituen Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, urtarrilaren 31n egin zuen saioan. Oi-

nariok argitaratzeaz dituzten Usurbilgo Udalak. Behin argitaratu ostean irekiko da eskabideak aurkezteko epea.

### Jai Batzordearen lehen bilera, otsailaren 13an

Usurbilgo jaiak antolatzen hasteko lanak abiatzeko garaia da. Honenbestez, uda hasieran ospatuko diren festa egunak zehaztu, eta egunotan ekimenen bat antolatu asmo duten norbanako nahiz eragileei zuzenduriko lehen bilera irekia deitu du Jai Batzordeak datorren astelehenerako, otsailak 13, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

### Larrañaga familiaren eskerrak

Ohar honen bidez, euren esker ona agertu nahi du Larrañaga sendiak: “Larrañaga familiako kideok, gure emazte eta ama Manoliren heriotzakoan doluminak eman dizkiguzuen eta maitekiro lagundu diguzuen guztioi benetan eta bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu”.

### Ikastetxeetan matrikulatzeko epea otsailaren 10ean amaituko da

2017-18 ikasturterako aurrematrikulatzeko garaia da ikastetxeetan. Tramitazioa bideratzeko epea zabalik izango da otsailaren 10era arte:

#### Udarregi Ikastola:

Gernika ibilbidea  
943 361 216  
udarregi.eus

#### Aginagako Eskola Txikia:

Erriberako Kalea 7, 09:30-16:30 artean/ 943 372 044  
012261aa@hezuntza.net  
aginaga.eskolatxikiak.org

#### Zubietako Eskola Txikia:

Learritza 52, 943 372 931  
012219aa@hezuntza.net  
zubietako@eskolatxikiak.org  
www.zubietako.eskolatxikiak.org.

## Usurbil 0.0 egitasmorako ekarpenak biltzen

“Usurbil 0.0” hondakinen kudeaketa eredu propioa izateko ibilbide orria aurkeztu eta egitasmo honetarako herritar eta eragileen ekarpenak biltzen hasi da Udala. Ondoko irudian, urtarrilaren 26an Potxoenean antolatu zuten lan saioa duzue. Gaiari buruzko informazioa eta abenduaren 22an aurkeztu zen behin behineko ibilbide-orria Usurbilgo Udalaren web orrialdean, usurbil.eus atarian duzuen “Usurbil 0.0” estekan klikatuta jaso dezakezue.



Egitasmo honen ibilbide orria usurbil.eus web orrian topatuko duzue.

### 2017rako udal aurrekontuak, behin betiko onartuak

Jendaurrean egon den epean inork ez du erreklamaziorik edo oharrik egin eta honenbestez, automatikoki behin betiko onartu ditu Usurbilgo Udalak 2017rako udal aurrekontuak. Udalak guztira, 11.057.464 euro ditu, aurtengorako aurreikusi dituen proiektuetara bideratzeko.

# Pagazperen protesta ekintza

Igandean zen jokatzekoa Euskal Herriko 3. Klub Artek Nazio Txapelketako finala, bertan behera geratu zen azkenean. Usurbilgo Pagazpe elkarte eta Aurrera Tolosa taldeak lehiatzekoak ziren Amezketako frontoian, baina aurreikusitako zeuden hiru partidetatik bakarria baino ez zen jokaterik izan, usurbildarrek egin zuten protesta ekintzagatik.



Aurrera Tolosak atera baina Pagazpeko pilotariak erantzun ez. Horrela egin zuten protesta Pagazpekoek. Argazkia: naiz.eus

## PAGAZPE ELKARTEA

**“Nahikoa da, beti guri nahastuarazten dabilta. Pilotariei errespetu falta, klubari berdin eta zaletuak nahasten. Hau jadanik onartezina da”**

## Pagazpe elkartearen oharra

“Amezketan jokatzeko den klubaren arteko txapelketako finala, urtarrilaren 28rako zegoen antolatua, baina antolatzaileek beraiek nahi dutela eta aldatzea erabaki eta otsailaren 5ean jokatu zela abisatu zituzten zortzi egun lehenago.

Txapelketa hau jokatzeko delako hiru urte dira eta kontua da jokatzeko egunak jartzen

dituztela, eta ondoren, inongo arrazoirik gabe aldatzen dituzte egunak. Aurten finalaren eguna behin eta berriz galdetu eta hilaren 28an erantzun zituzten. Gauzak horrela pilotariak beraien agenda, txapelketaren arabera moldatzen dute eta antolatzaileek zortzi egun lehenago aldatu dute eguna.

Iaz berdin, aurten bi aldiz... Horrenbestez, Pagazpe pentsatu du: nahikoa da, beti guri nahastuarazten dabilta. Pilotariei errespetu falta, klubari berdin eta zaletuak nahasten. Hau jadanik onartezina da.

Datorren otsailaren 5ean igandea, arratsaldeko 16:30ean Amezketan: Aurrera Tolosa - Pagazpe P.K. Eren aurka. Animatu herritarrek gure pilotariei babesa emateko eta antolakuntza honi nahikoa dela esatera”.

Pagazpe ezin izan zituen eraman Amezketara finalerako behar zituen pilotari guztiak, pilotarietako batzuk beste kirol konpromiso batzuk baitziztuzten. Eta finalean parte hartzeko zen pilotarietako bat takorik gabe kantxaratu zen protesta moduan, parte hartzeari uko eginez. Final handia ikustera bertaratu zirenak txistuka hasi eta antolakuntzak neurketok bertan behera uztea erabaki zuen.

Antolakuntzak Aurrera Tolosa jo du txapelketa honetako garaitzat. Pagazpe Elkarteak, herritarrek igandean Amezketara joatera deituak zituen, herriko pilotariei babesa eman eta “antolakuntza honi nahikoa dela esatera”. Arrazoiak finala aurretik NOAA!ra helarazitako ohar honetan azaldu zituen Pagazpe Elkarteak:

## Larunbatean, senior nesken derbia Oiardon

Denboraldiko etxeko derbi bakarria jokatu du Usurbil K.E.-ren senior nesken taldeak, larunbatean 19:30ean Oiardo Kiroldegian, Aiala Zarautzen aurka. Usurbil K.E.-k “Zarautzko neurketa irabazi zuen, baina zarautzarrak bigarren daude eta usurbildarrek hirugarren postuan sailkapenean”.

## Usurbil K.E.-ko kadete nesken Euskal Ligarako fasea

Asteburuan promozio fasea jokatu dute usurbildarrek



Larunbat honetan arratsaldeko 19:30ean, Usurbil KE-Aiala Zarautz.

Zumaian. Bertan lehiatu diren 4 taldeetatik bi Euskal Ligan izango dira bigarren fasean.

■ Parte hartuko duten taldeak: Aloña Mendi K.E.; Usurbil K.E.; Trapaia Taberna Pulpo K.E.; Urdaibai ET.

## Partiden egutegia:

■ Otsailak 10, ostirala: 17:30 Urdaibai-Usurbil  
19:00 Aloña Mendi-Pulpo.  
■ Otsailak 11, larunbata: 17:30 Usurbil-Aloña Mendi  
19:00 Urdaibai-Pulpo.  
■ Otsailak 12, igandea: 11:30 Aloña Mendi-Urdaibai  
13:00 Pulpo-Usurbil.

## “Bidasoako Kontrabandistak” ibilbidean barrena

Hondarribiatik Arrixulorako bidea osatu zuten urtarrilaren 15ean. Igande honetan, Arrixulo eta Arantza lotuko dituzte. 07:30ean Oiardo Kiroldegian jarri dute biltzeko hitzordua. Izen ematea hilaren 8an itxi zuten.

## Futbol partidak Haraneko zelaian

### Otsailak 11 larunbata

■ 10:00 Alebin neskak: Udarregi 6B-Urnieta 5  
Udarregi 5-Udarregi 6A  
■ 11:15 Infantil neskak: Usurbil A-Oiartzun A  
Usurbil B-Hondarribia  
■ 16:00 Jubenil mutilak: Usurbil F.T.-Hondarribia A  
■ 18:15 Beteranoak: Usurbil F.T.-Zumaiaiko

## Eskubaloia partidak Oiardo Kiroldegian

### Otsailak 11 larunbata

■ 10:00 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5B-Urnieta 5A  
Udarregi 6B-Urnieta 6A  
■ 11:00 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B-Eibar  
■ 12:15 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi-Aurkaria zehazteke  
■ 15:45 Kadete mutilak, Euskal Liga (lagun artekoa): Usurbil K.E.-Amenabar Zarautz  
■ 17:30 Jubenil neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Aurkaria zehazteke  
■ 19:30 Senior neskak, Zilarrezko Ohorezko Maila: Usurbil K.E.-Aiala Zarautz

### Otsailak 12 igandea

■ 11:30 Alebin mutilak, Gipuzkoako Errendimenduzko Txapelketa: Pulpo-Usurbil K.E.

## Eskubaloia, selekzioa

### Otsailak 12 igandea

■ 16:00-18:00 Kadete mutilen Gipuzkoako selekzioaren entrenamendua Oreretako Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko jokalariek Eneko Furundarena deitu dute.  
■ 18:00-20:00 Jubenil mutilen Gipuzkoako selekzioaren entrenamendua Oreretako Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko jokalariek Joseba Errazkin, Eneko Iribar eta Julen Nazabal deitu dituzte.



zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsu bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketara. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.

ko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekue-tan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jateetxe-aren batean harraskako garbiketarako egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

#### BESTELAKOAK

Betaurreko batzuk agertu dira,

graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituen. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoa entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat

aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuak txaketa beige bat galdu zen uztailaren amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUAra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzaingora haurrentzako botika eta higienarako produktuz betetako laranja koloreko nezeser edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoa galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiaro Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polarrak bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztailako bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrek edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenera ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitagia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskalategia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonika.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 09** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 10** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Larunbata 11** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 12** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Astelehena 13** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Asteartea 14** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteazkena 15** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

## Otsailak 09 - otsailak 19

**Osteguna 16** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Ostirala 17** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 18** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 19** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda otsaila

## 09 osteguna

- **Korrika Batzordearen bilera.** 19:30ean Etumeta AEK euskaltegian.

## 11 larunbata

- **Sagarrondotik sagardora ikastaroko saioa** 09:00-13:00 Potxoenean.
- **Oriaren 23. Traineru Jaitsiera** 16:00etatik 18:00etara.


## 12 igandea

- **Mendi irteera: "Bidasoako Kontrabandis-tak 2: Arritxulo-Arantza".** 07:30ean abiatuko dira Oiardo Kiroldegitik.
- **Haurrentzako 1. Xake Txapelketa,** 16:00-19:00 Usurbilgo Gaztetxean.

## 'Sagarrondotik sagardora' ikastaro zikloa abiatzear da

Iaz bezala, ikastaro praktikoa izango da honakoa, otsailaren 11n abiatu eta iraile-ra arte luzatuko dena. Saioak Potxoenean izango dira. Honatx saioen egutegia eta izen emateko argibideak:

- Otsailak 11: "Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketa", Aitor Etxeandiaren eskutik.
- Martxoak 4: "Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak", Aitor Etxeandiaren eskutik.
- Martxoak 11: "Fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketa", Josu Osaren eskutik.
- Apirilak 1: "Garbitasuna kalitatearen lagun. Sagardoa egurrezko ontzietan eta sagarrondoaren bizimodua", Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondoren eskutik.
- Apirilak 22: "Ilargia eta egutegi biodinamikoa", Xabier Akizuren eskutik.
- Ekainak 3: "Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak", Aitor Etxeandiaren eskutik.
- Uztailak 15: "Fruitu arbolen udako edo begiko txertaketa", Josu Osaren eskutik.
- Irailak 9: "Sagarraren heldutasun analisiak. Etxean sagardoa egiteko hastapenak", Aitor Etxeandiaren eta Egoitz Zapiainen eskutik.



Larunbat honetan Aitor Etxeandiak eskainiko duen saioarekin abiatuko da ikastaroa.

Oharra: kimaketa praktikak bertako sagastietan egingo dira.

### Saio denak Potxoenean

- Orduetgia: 09:00-13:00.
- Tokia: Potxoenea.
- Izen ematea: 943 361 114  
alkartasuna@usurbil.com  
alkartasuna.eus
- Ikastaroko prezioa: ikastaro osoarena 96 euro (Alkartasuna Kooperatibako bazkideek doan). Saio solteetarako ere eman daiteke izena.
- Antolatzailea: Alkartasuna Usurbilgo Baserriarren Kooperatiba.

### Datozenak

#### Proiektu solidarioa Ziortzan

Gazte Elkartetik NOAUA!ri ohartarazi diotenez, proiektu solidario bat lantzerako doa Ziortza Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin. "Saio bereziak izango ditugu. Animatu!", luzatu die gonbita. Saioak otsailaren 10, martxoaren 10 eta apirilaren 7rako iragarri dituzte, Ziortzako lolaketan.

#### Larunbat honetan, Oriaren Jaitsiera

Neguko estropada garrantzitsuena jokatu da otsailaren 11n larunbatetarekin: Oriaren Traineru Jaitsiera. 16:00etatik 18:00etara. 6.000 metroko estropada Mapildik abiatuko da. 4.000 metrokoa, Saikolatik.

#### Igandean, Xake Txapelketa gaztetxean

Haurrentzako Lehen Xake Txapelketaren hirugarren eta azken saioa igande honetan izango da, 16:00-19:00 artean Gaztetxean. 12 urtetik beherako haurrei zuzendua dago. Informazio gehiagorako: 658 997 828 (Erik)  
erikjuez@gmail.com



# EUSKAL INAUTERIAK

OTSAILAK 18 • LASARTE-ORIA

11:00-13:00// Sagardotegi kaletik abiatuta,  
Lasarte-Oriako elkarteetan zehar **PUSKA BILA**

16:00// Zubietako plazan **ekitaldia**

16:15// Zubietatik Okendora **KALEJIRA**

16:30// Lasarteoritarren **HARRERA**:  
Lasarteoritarren gonbidapen dantza eta zubietarren erantzuna

17:00// Zubietarren eta lasarteoritarren **SENIDETZE DANTZALDIA**

17:30// **Kalejira** herritik

18:30// Erromeria eta suaren ekitaldi berriua  
Amaitzeko **txokolatada** goxoa plazan

21:00// Irakurle txokoaren eskutik **Bertso afari literarioa**,  
Xirimiri Elkarteak: Eider Rodríguez, Uxue Alberdi, Maialen Lujanbio eta Ane Labaka.



B E R P A  
T S O L K  
A G U T I  
K Z I A K

**ANDONI EGAÑA**  
**MAIALEN LUJANBIO**  
**IKER ZUBELDIA**  
**UNAI AGIRRE**

Gaijartzailea:  
**AITOR MENDILUZE**

**Ondoren gutizia**  
**bereziz osatutako**  
**luntx-afaria**

Otsailaren 17an,  
19:00etan **Basque**  
**Culinary Center**en

23:30etan autobusa **doan**  
Hernanira bueltatzeko

BCC → **Basque Culinary Center** → ATSEGINDEGI

SARRERAK SALGAI  
HERNANI **Kronika**  
943 33 08 99, **Kixkal**,  
**Aralar**

ASTIGARRAGA **Ikatza**  
EREÑOTZU **Irrintzi**  
GOIZUETA **Amaia**  
**kafetegia**

**20 €**

ANTOLATZAILEA  
URRUMAKO  
**Kronika**

LAGUNTZAILEA  
**INSALUS**

# URDAIRA



## Sagardotegia

astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 7ra  
**TXOTX GARAIA**

Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**  
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei  
sagardo hoberenak eskeintzen.

Iruin, beti zuegandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubietza

# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • **943 55 69 81**



Kalezar 39, USURBIL sidrerria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

## aginaga

### SAGARDOTEGIA

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA

**943 36 67 10**

Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)

Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea